

ZENBAT BURU

Iñigo Otaño

ERREPORTAJEA

Lan istripuak

GEHIGARRIA

Kilibarren

UDALETXETIK

2000ko Udal
Aurrekontuak

KULTURA

'Asire dantza
ikuskizuna



BARREN

2000ko apirilaren 28a
VIII. urtea - 318. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



Lan istripuak,

ralta,

"Presako lanak gauza onik ez" (Esaera Za arra)



2000/2001

**Natur eta Osasun Zientzien Batxilergoa: Zientifiko-Tekniko aukera
Osasun aukera**

**Giza eta Gizarte Zientzien Batxilergoa: Gizarte Zientzien aukera
Humanitate aukera**

Teknologiaren Batxilergoa

Izen ematea: Maiatzaren 2tik 12ra arte.

ERDI MAILAKO HEZKUNTZ ZIKLOAK:

Merkataritza

Ibilgailuen Elektromekanika

Karrozeria

Erizaintza Laguntza Osagarriak

GOI MAILAKO HEZKUNTZ ZIKLOAK

Administrazioa eta Finantzak

Automozioa

Ingurugiro Osasuna

Izen ematea: Ekainaren 1etik 12ra

Sarrerako frogarako izena emateko epea: Maiatzaren 12ra arte

U11 ...11

83 profesional

Ingeniariak, kimikoak, fisikoak, biologoak, erizainak, ekonomilariak, informatikoak, historiadoreak, filosofoak, matematikoak, teknologoak, filologoak, maisu-maistrak, psikologoak, bulegariak, konserjeak **Elgoibar, Mendaro, Deba** eta inguruko gazteen prestakuntza jorratzen hainbat eta hainbat urtetan.

3 Batxiler mota, 4 aukera unibertsitario eta Teknologiaren Hezkuntz Ziklorako prestakuntza espezifiko eskaintzen duen ikastetxea duzu.

Europarekin elkartrukea.

**Internet doan informatika gela guztietan eta liburutegietan.
Hizkuntzak ikasteko lagortegirik ikusgarriena,**

ELGOIBAR, MENDARO, DEBA, EIBAR, AZPEITIA, MUTRIKU eta hainbat herritako 600 gaztek giroten dituzte gelak, pasabideak, tailerrak, gimnasioak, laborategiak, bideo gelak, informatika gelak, bulegoak...

Informazio gehiago nahi baduzue,

maiatzaren 3an, arratsaldeko 19:00etan Institutuko Areto nagusian
egingo dugun saio informatibora gonbidatzen zaltuztegu



IÑIGO OTAÑO

Atal hau ez da BARRENen editoriala, Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu konluan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Anaia handia

Aruntkeria dute erakusgai. Ez dago argumenturik, ezta gidoirik ere. Pertsonaiek ez daukate hari bat jarraitu beharrik, orduak pasatu eta egunak betetzea besterik ez da euren lana, zeregin zehatzik gabe.

Jateko zer erosiko duten da programaren gakoa. Dutzara Iehenago zein sartuko den da programaren gakoa. Eguneroko bizitzaren kontu txiki horiek guztiek osatzen dute programaren muina.

Zer esaten duten'? Ezer garrantzikorik ez. Egunero hamaika aldiz errutinaz errepikatzen ditugun gauzak besterik ez dira, milaka pertsonen begietan daudela jakiteak ematen dien harrokeriaz puzturik.

Ez dira pertsona eza-gunak, adimentsuak edo bereziki trebeak zerbaitetan. Geu bezain arruntak dira, edo gehiago akaso. Lotsarik ez izatea izango da ziurrenez euren bertute bakarra.

Hori guztia horrela izanda ere, telebista kate oso bat daukate eurentzat bakarrik. Egiten duten rrujimendu bakoitza jarraitzen dute ingtratzen dituzten kamerek. Eta horien atzetik milaka pertsonak. Zer diot milaka, milioika pertsonak.

Idea lehen aldiz entzun nuenean, zentzugabea eta ezinezkoa iruditu zitzaidan, ez nuen uste inor horrelako zerbait egiteko gai izango zenik. Idea hura gauzatu eta nonahi

iragarritz hasi zirenean, berriz, kurioa iruditu zitzaidan, ezin nuen astnatu nola egingo zuten.

Behin ikusi dut, behin bakarrik, eta gauza bat iruditu zait: zabarko arrunta dela. Horixe zen agian bere helburua, aruntkeria erakustea, gure auzokoari ikusi nahi geniokeena baina ikusi ezin dioguna eskaintzea. Hori bai, publizitate eta morbo dosi altuekin, noski. Baina, hala ere, baldarregia iruditu zait.

Telebistan hamaika serie kaskar ikustera ohituak gaude, baina bakoitzak bere istorioa kontatzen du eta badakigu fikzioa direla. Telebista ikustearen zentzugabetasuna nolabait ezkutatu edo disimulatzen dute.

Programa horrek, ordea, batere lotsarik eta disimulurik gabe eskaintzen digu gure errutina alde batera utzi eta beste batzuen errutina ikusteko aukera. Zertarako saiatu bitzita imitatu nahi duten fikziozko serieak egiten, hamar tipo etxe batean sartu eta beraien bizitza ikus badezakegu.

Telebistaren zabarkeriaren erakusgai garbiena da, baina azken finean gizarte honek irensten duen produktu bat gehiago besterik ez da, txanpainaren bitsa bezala hazi eta desagertuko dena. Bitartean, zein tontoak garen esango diot berriro neure buruari.

"Programa horrek, ordea, batere lotsarik eta disimulurik gabe eskaintzen digu gure errutina alde batera utzi eta beste balluen errutina ikusteko aukera".

Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
T^l 943 74 41 12
Publizitatea:
tr 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:

barren@topagunea.com

Helbide informatikoa:

www.ihardun.com/barren

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA	Elgoibarko Udala
KAZETARIAK	Irati Agirreazaldegi, eta Asier Orbea
PUBLIZITATEA	Andoitz Agirregomezkorta
MAKETATTAILEA	Bea Ansota
ADMINISTRAZIDA	Amaia Martin
GERENTZIA	Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste.
KOLABORATZAILEAK	Ainhoa Andonegi, Aitor Argarate, Idoia Arozena, Aitzol Arriola, Martin Dominguez, Juanito Gorostiza, Arnailz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE, Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea, Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba, Iñigo Otaño, Jon Peli Uriguen, Iban Urizar, Amaia Urzelai, Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.
AZALEKO ESALDIA	Gotzon Garate
BANAKETA ARDURADUNA	Imanol Larrañaga
EUSKARA ZUZENTZAILEA	Ibon Arriola
INPRIMATEGIA	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILUA	SS-1.038/92
ISSN	1139-1855

Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.



=====

*gizarte-ekintza
obra sozial*

ANDANOBAT

/AGOITI
GRUPO DANOBAT

Malaliaren la

Nrain dela urtebete egin genuen irak-Jkurketa berbera egin dugu aurten-goan ere. Lan orduen eta irabazien banaketa eta babes soziala alegia. Izan ere, enpleguak ez du aurrera egin.

Iazko maiatzaren 21ean greba orokorra egin zen Hego Euskal Herrian eta sostengu oso zabala izan zuen. Orduetik hona gauzak oso gutxi aldatu dira. Langabetu kopurua %14 izaten jarraitzen du (160.000 lagun, horietatik 60.000 bi urte baino gehiago). Oso pauso gutxi eman da orduen murrizketan, beraz, enplegu gutxi sortu da. %65 kontratazio fijo da, beste %45 ebentuala edo prekariora. Kontratuen %25 E'rTek egiten dute eta %10ak ez du inolako kontraturik. Kontratazio ebentuala jasaten duten gehienak gazteak eta emakumeak dira.

Enpresen irabaziak %250 igo dira azken 3 urteotan eta langileenak %10. Non dago banaketa? Borroka egin behar dugu ondasun hau banatzeko eta denok enplegu duin bat izateko. Euskal Herrian nahiko ondasun badago banatzeko eta denok lana izateko, baina zoritxarrez gaizki banatuta dago.

Patronalak eta administrazioak beste aldera begiratu dute azken urteotan, eta ez dute inolako pausorik eman, ez 35 orduko lan astea onartzeko ez eta salario soziala ezartzeko ere.

Langabezia eta pobrezia dira gaur egun gizarteak dituen arazo sozialik handienak. 30.000 famidia bizi dira pobrezian. Gero eta ahalmen txikiagoa dute aurrera egiteko, integratzeko eta bizi kalitate minimo bat lortzeko.

Euskal sindikalgintza prestatuta dago borrokatzeko, 35 orduak eta salario soziala jartzeko, lana egin nahi duten guzientzat. Enplegua sortzea da gure asmoa.

Egunetan somatzen dugu, PP Madrildik UGT eta CC.00-ekin batera lan merkatuko erreforma berri bat prestatzen ari dela. Hau da, despido merkeagoa, langebeziari laguntza gutxiago, jubilazioa luzatu... beraz, lana izango dugu honi guztiari aurre egiteko.

LABek ELArekin batera ospatuko du aurten langileen eguna Bilbon.

Mendaroko Gaztetxea

*Arrain handiek txikiagoak
beti jan izan dituzte
hitzak ugart, baina egia
gezurrek estali ote?
Jakinmina dun ororentzako
zabalduz leiho ta ate
jblloak finnaz hete
bilerak ere dexente
Handi guztiak otso direnik
nahiz eta ez dugun uste
arrain txikiek elkarntz. gem
irauten dute*

Astero idazten ari garen eskutitz hauen bidez, Mendaroko gaztediak dituen ideiak henitaneñ erakutsi nahi dizkiegu. Bide batez, gure helburu nagusiak, batez ere, gazteok bat egitea eta horretarako lagungarria izango litzaikeen topagune bat bultzatzea direla esan nahi dugu.

Gaztetxearen Aldeko Ekimena

LAB Herri Biltzarra

BARRENEK ez du bere gain hartzen I RITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon behar dute argitaralu ahal izateko. Ez ahartu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zenbakia**.

• Herritar batek honako kexa hau argitaratzeko eskatu digu, "Mintxetako atletismo pista dagoen goroldioa dela-eta, pista oso labankorra dago eta oso arrisku-tsua da kirolarientzat. Euria egiten duenean edo eguraldi hezea dagoenean oso erraza da muturrez aurrera jaustea, batez ere errebueltetan. Jadanik zenbait haurrek ezagutu dute lurak duen zapore rnikatza, atletismo txapelketa bat baino gehiago jokatu baita bertan. Gainera, haurrak gomazkoak dira eta ez dute denbora asko behar izaten berriz ere korrika hasteko, baina nagusitxoagoak garenok, lesio larriagoak izateko arrisku handia dugu. Beraz., dagokionari Mintxetako errebueltetan dagoen goroldioa kentzeko eskatu nahi nioke".



144~itsti~.44



• **Giza Eskubideen plazan**, udaletxe atzean, dagoen zulo batez kexatzera etorri zaigu emakume bat, "zulo horrek (argazkian ageri denak) ia urtebete darama bertan eta oso arrisku-tsua da, batez ere umeentzat. Nire semeak hanka sartu zuen pasa den egunean eta gureak eta bi kosta zitzaigun hanka zulotik ateratzea. Udaletxean ere eman dut aditzera zulo honen berri, baina ahalik eta bizkorren konpontzea komeni da".



51110/A

• Makina Erremintaren mundua eta historia gertutik ezagutzen duten elgoibartar batzuk **Patxi Aldabaldetrek** enpresario eta historialaria txalotu nahi dute, "Patxik idatzi duen liburua (Makinak eta gizakia: gida historikoa) oso ona da eta sektore honek Elgoibarren izan duen garrantzia oso ondo isladatzen du. Zorionik beroena ematea besterik ez zaigu geratzen".

JOSE, I; (ttu4d
(Txema)

— **Mota guztietako pintura eta enpapelatuak. Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen dugu**

San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 929 44 23 14

19CUTICIT

Enpanadak	Enbutidoak
Baserriko ogia	Bolleria

San Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 rf 943 74 33 92

a

ESKERTZA

2000ko apirilaren 21ean, 75 urte zituela hil zen **AGUSTIN SAGASTA ISASMENDI**ren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Lan istripuak:

r HILDAKO 2000. URTEKO LEHEN 3 HILABETETAN, HAUXE DA LAN ISTRIPUEN ONDORIOZ EAEN BIZIA GALDU DUTEN LANGILEEN ERREKOR TRISTEA. ELCOIBARREN ERE IZAN DA LAN ISTRIPURIK, ETA TARTEAN HERIOTZA BAT. HORI DELA-ETA, LAN ISTRIPUAK AHOZ AHO DABILTZA AZKEN ALDIAN. HILDO BERETIK, NAZIOARTEKO SINDIKALGINTZAK, IANEAN ARI ZIRELA HIL DIREN EDOTA ZAURI LARRIAK JASAN DITUZTEN LANKIDEAK GOGORATZEKO EGUNA IZENDATU DU GAUR, HILAK 28. GAINERA, MAIATZAREN 1A, LANGILEEN EGUNA GAINEAN DUGUNEZ, LANGILEEN ORDEZKARIEKIN, HAU DA, SINDIKATUEKIN FIITZ EGIN DUGU ARAZO HONI BURUZ.

ELA

txi Zubizarreta, ELAko Debabarreneko arduradunak esan digunez 3 egunetik n gertatzen da lan istripu bat. "Hauetaz gain, ezkutuan gorcietzen diren istripuak ere gertatzen dira. Enpresei ez zaie komeni istripuen berri zabaltzea, bestela, legez inspektzioa pasatu behar bartute". Patxi azaldu digunez, "arriskuak zein diren argitzeko ikerketa bat egitera behartuta daude enpresak. Aseguru-etxe edo etxe ezpezializatu baten bitartez egin behar dute ikerketa. Ondoren, enpresari dagokio emaitzak aztertu eta dauden arriskuak konpontzeko ardurara. Hata ere, aseguru-etxeek ez dute beti zuzen jokatzeko eta ez ikusiarena egiten dute kasu batzutan. Enpresa handi gehienetan, hobeto edo okerrago, ikerketa egina dago, baina ez da pauso gehiagorik eman. Administrazioak noizean behin isunak jartzen dituen arren, hori ez da soluzioa. Azken finean, beraiek halo uste izan ez arren istripuak gastu handiagoak dira enpresentzat segurtasun neurrietan gastatuko luketena baino. Gainera, urtean heriotza bakar bat eragozteko bada, merezi du".

"Urtean heriotza bakar bat eragozteko bada ere, merezi du segurtasun neurrietan inbertitzea"

Patxiaren iritziz, "behar bezolako neurriak hartzen ez direlako gertatzen dira horrenbeste istripu, baina lan prekarioak ere eragin zuzena du. Behin-behineko kontratuak diuzten langileak ordu mordo sartzera behartuta daude. Segurtasun neurriak deserosoak direnez, lan eritmoa geldiarazten dute. Horregatik, lan prekarioa dagoen tokietan istripu gehiago izaten dira. Bestalde, enpresari formazio falta dagoela diote eta hori ere izan daiteke beste arrazoi bat".

LAB

Sabin Zenarruzabeitia, LAB sindikatuko kideak esan digunez, "lan istripuz hilakido langileak beti izan dira eta etorkizunean ere izango dira. Hala ere, orain arte normaltzat hartzen ziren laneko istripuak, gaur egun leku eta denboraz kanpo daude. Lan segurtasunari dagokionez hirugarren munduko lurraldea da

"Istripuek lan prekarioarekin lotura zuzena dute eta langileek ezin dute euren egoera salatu"

Espainia. Ezin da ahanzi heriotza baten atzean ehundaka baja daudela". Lan istripuak lan prekarioarekin lotura zuzena duela uste du Sabinek, "ETTetako langile gehienak gazteak dira eta gainera, ez daukate formazio eta esperrentzia gehiegirik. Horretaz gain, ezin dira

hil ala biziko arazoa

segurtazun egoera kaxkarraz kexatu, bestela kalera botako baitituzte eta beste batzuk hartu euren ordeiz. Gauzak horrela, enpresak langilea esplotatzen du". Sindikatuen lana istripuak salatzea dela esan digu, "istripuak gertatzen direnean tailerrez tailer ibilfzea da gure eginbeharra, batzutan enpresa segurtasun neurriak hartzeko presionatuz eta beste kasu batzutan salaketak jarritz. Dena den, salaketak egiteko orduan izugarritzko hutsu-neak daude, Osalan eta seguritate sozialak ez baitute betebeharrak hori betetzen.

UGT

Robertoren iritziak, erruaren %90 patronalak eta administrazioak dute eta gainontzekoa langileek, "Instituzioek ez diote behar besteko lehenetasunik ematen arazo honi. Batetik, laneko arriskuen prebentzio-
Reoberto Aizpurua UGT sindikatuko Debabarreneko ordezkariaren iritziak, bitatu daitekeen arazo larria da lan istripuena, "beti izango dira, baina gaur egungo lan istripu kopurua altuegia da. Aurtengo urtarrilean adibidez, 8.542 lan istripu izan dira Euskal Autonomi Erkidegoan, iaz baino 1.729 gehiago. Alor honi dagokionez Europako atzeko muturrean gaude eta hori onartezina da".

Robertoren iritziak, erruaren %90 patronalak eta administrazioak dute eta gainontzekoa langileek, "Instituzioek ez diote behar besteko lehenetasunik ematen arazo honi. Batetik, laneko arriskuen prebentzio-

"Erruaren %90a patronalak eta administrazioak dute. Gainontzekoa langileek"

rako legea ez da guztiz betetzen, eta bestetik, administrazioak segurtasun neurriak betetzen ez dituzten enpresak zigortu beharko lituzke".

Istripuak gertatzeko arrazoi nagusiak produktio erritmo altua, prekarizazioa eta Eftak dira. "Enpresek denbora laburrenean etekinak ateratzea bilatzen dute, eta erritmo horrek segurtasun eza sortarazten du. Enpresentzat segurtasun neurriak hartzea ez da inbertsio bat, gastu bat baizik, eta pertsonen bizia gutxiesten da.

2000-IV-28



Bestalde, ETTetako langileek prekarizazio handiagoa jasaten dute. Datuak hor daude; lan istripuak izan dituzten 3 pertsonetarik 1 epe motzerako edo behin-behineko kontratuarekin zeuden. Gure ustez, lanean zenbat eta seguruago eta gusturago jardun istripuak izateko aukera ere guixitu ohi da".



Eraikuntzaren sektorean prekarizazioa eta Eftak dira lan istripuak izateko faktore nagusiak.

CC.00

Carlos Rodriguez, CC.00 sindikatuko kidearen hitzetan, lan istripuen ondorioz hildako langileen kopurua gehiegizkoa da. Bere iritziak, langileek erruaren zati garrantzitsu bat dute, "gaur egun 40 langiletik gorako enpresa ia guztiek betetzen dituzte segurtasun neurriak. Gure burua babesteko materialak eskura ematen dizkigute langileoi, baina ez ditugu erabiltzen. Langileak ez dira oharitzen segurtasun neurriak erabiliz gero lan istripu gehienak ebaita daitezkeela. Enpresarien errua, berriz, langileak neurriak betetzera ez behartzea litzateke. Enpresa bakoitzean prebentziorako delegatu bat egon behar du segurtasunaz arduratzeko. Enpresaria segurtasun beharren jakinaren gainean jarri eta neurriak betearaztea da bere lana". Bestalde, Carlosen ustez, segurtasun neurriek gain enpresek, garbitasuna, jantoki egokia eta oro har zerbitzu dextentak eskaini behar dituzte.

Langileek segurtasun neurriekin lan egin dezaten kontzientziatuz lan itzela da goela azaldu digu, "gazteek badeute segurtasun neurriekin lan egiteko ohitura, baina langile helduek ez daude batere kontzientziatuta, laneko beste kultura batean heziak izan baitira. Segurtasun neurriak; betaurrekoak, botak, kaskoa. Lan egiteko traba edo enbarazua direla diote. Sindikatuak lan asko egiten ari gara langileak kontzientziatzen. Hala ere, tamalez lan istripuei buruzko kezka indar handiagoa du sindikatu mailan langileen artean baino".

"Lan istripuei buruzko kezka indar handiagoa du sindikatu mailan langileen artean baino"

tziatuta, laneko beste kultura batean heziak izan baitira. Segurtasun neurriak; betaurrekoak, botak, kaskoa. Lan egiteko traba edo enbarazua direla diote. Sindikatuak lan asko egiten ari gara langileak kontzientziatzen. Hala ere, tamalez lan istripuei buruzko kezka indar handiagoa du sindikatu mailan langileen artean baino".

"GRNV ihmmmon telebista saioa hasi da

Erakutsiko a zenuke zure bizitza pribatua telehistan?



CINTIA PAZMIÑO

14 urte, ikaslea

Igual bai, baina neuni batzuekin, ze komunian kamarak ipintzia gehixegi dala uste dot. Oin nobedadia da eta ondo dao, baina aurrerao ez dakit ikusten jarraitxuko doten.



M.EUGENIA LARRAÑAGA

40 urte, etxeoandrea


Ez dot uste. Hala ere, 20 milioi pentsatzeko moduko dirua da eta ez dakit ze ingo nuken. Nik kuriosidade moduan programia ikusteko asmua dakat.



RAUL SIERRA

29 urte, espezialista

Nik ez. Ez dut pmgrama ikusi, baina badakit nolakoa den eta nik ez nuke horrelakorik egingo. Norberaren bizitza pribatua da eta erakustea ez zait ondo iruditzen.



J.LUIS SARRIUGARTE

46 urte, elektrizista

Neuk ez. Esan ezkeru ziur 20 milioi aterako ditxutela bai, baina bestela ez. Lehenengo programia ikusi naban alabiagatik, baina ez jata ondo iruditzen.



FERNANDO MENDIETA

21 urte, mekanizadorea

Ez, ezta diruagatik ere. Bizitza intimoa pribatua da eta ez nuke erakutsiko. Programaren berri orain izan dut eta kuriositatez bada ere, agian egunen baten ikusiko dut.



ANDREA ARRIOLA

33 urte, abokatua

Ez. Nere etxeko gauzak ez nitxuzke ezergatik erakutsiko. Gainera pasada bat iruditzen jata holako programa bati hain inportantzia haundixa ematia.

1950. URTEAN JAIOTAKOEN

TOPAKETA

1950. urtean jaiotako elgoibartarrek datorren ekainaren 10erako, larunbata, BAZKARIA antolatu dute mende Erdiko bizitza ospatzeko.

1950. urtean jaiotako zen eta kanpoan bizi den elgoibartanik ezagutzen baduzu, esaiozu mesedez gurekin kontaktuan jartzeko:

Tel. 943 74 40 98 MAIDAGAN denda
Tel. 943 74 08 04 Maria Victoria

1VTURAK
PEDRO PEREZ BERMAIN
an Roke, 30 behe. z 943 74 36 52 74 27 89
KOMUNITATE... XADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

14 04 1XO
ROCK-KAFEA
San Frantzisko, 41 • Tel. 943 74 39 25

2000ko UDAL AURREKONTUAK

1.265

ezeiakoa da 2000ko Udal Aurrekontua

laz baino 67.500.000 pezeta gutxiago izango ditu aurten Udalak gastuetarako

Apirilaren 13an ezohiko plenoa izan zen Udaletxean eta gai nagusia 2000ko aurrekontua izan zen. Guztira Elgoibarko Udalak 2000. urterako 1.265 milioi pezetako aurrekontua du. EAJ-PNV, EA eta EHren aldeko botuekin onartu zen aurrekontua. PSE-EE alderdiak aurka botatu zuten eta PPko zinegotziak ez ziren plenoan izan.

Maribi Agirregomezkorta, Hazienda Saileko zinegotziak adierazi zuenez, aurtengo aurrekontua iazkoa baino %5 txikiagoa da, baina baliteke urte amaieran gora egitea. Oro har aurreko urteetako maila bera jarraitu dute, eta Agirregomezkortak esan zuenez, "1.265 milioi pezetako aurrekontua eta 800 milioi pezetako zorra ez dira erabat pozik egotekoak. Hala ere, aurrekontu ona dela esan genezake, gauzak horrela egon arren herriarrentzat onak izango diren inbertsioak egingo ditugulako". Besteak beste karakoleko zubiaren berrikuntza lanak, Musikeskolako eraikuntza eta San Roke auzorako bidea konpontzea daude asmoen artean.

PSE-EE aurka

Aurrekontuak alderdi abertzaleen onespina jaso bazuen ere, PSE-EEko zinegotziek beraien ezadostasuna adierazi zuten plenoan. "Gure alderdiak ez du apenas denborarik izan aurrekontuak begiratzeko, beraz, botazioa atzeratzea nahiko genuke", esan zuen Ovidio Campello zinegotziak. Campelloren hitzetan, "Botazioa baino egun bakar bat lehenago jaso genuen aurrekontua, eta horrela inork ezin du zehaztasunez aztertu, beraz, honegatik eta beste arrazoi batzuegatik kontra botatuko dugu". Arrazol horien artean dago, besteak beste, Udalak pertsonal buru bat kontratatzeke duen asmoa, PSE-EE ez baitago horrekin ados.

EH pozik

EH alderdia pozik agertu zen, urte askoan kanpo egon ondoren, aurtengoan aurrekontua egiten parte hartu dutelako. Asier Zengotitak esan zuenez, "gustura gaude aurrekontua egiten parte hartu du-



EAJ, EH eta EAren botuekin onartu zen 2000. urterako aurkeztutako aurrekontua.

gulako eta dinamika berri baten sartu garelako". Hala ere, formatan aspektu negatibo batzuk azpimarratu zituen. "Aurrekontuak pertsonok egin ditugu, eta argi dago denok ez direla ados egongo hauekin. Hala ere, guk lehendakaritza daukagun batzordeetan (Euskara eta Barne Saila), saiatu gara aurrekontua garaiz egiten eta Udal barruko zein kanpoko jendearen partehartzea onartu dugu, hortan fallo txiki bat dagoela ikusi baitugu". Aspektu positiboak negatibok baino gehiago izan direla azpimantatu zuen. "Aurrekontu hauetan ez dago proiektu konfliktiborik, eta guk bi proiekturi eman diegu garrantzia, bata alde zaharrekoa eta bestea, tasa eta zergena". Aurrekontu aurterakoia dela ere zehaztu nahi izan zuten.

Gobernukideen lankidetzak Gillenno Garate alkateak komunikabideei emandako agiri batean Elgoibarko talde abertzaleek bat eginda, irizpide berdinekin aurrekontua osatu dute[adierazi zuen. Bere esanetan, "politika finantziario

lan bat izateaz gain, indar abertzaleen arteko bateratasun ezaugarria ere bada eta ziur nago elgoibartarron gehiengo baten onarpena jasoko duela. Gobernu Barzordeko kideok irizpide propioak alde batera utzi eta aurrekontu bateratua eta integraztailea osatu dugu". Bere txirritu zaletasuna agerian utziz adierazi zuen, "lehenengo etapa baino ez da. Legegintzaldia bukatu artean, oraindik erantzukizun handiko etapa aldapatsuak gelditzen zaizkigu, eta bide hori arrakastatsua izateko lankidetzalco jarrerak iraun behar du Gobernuakideon artean". Bestalde, Udaleko gaitzarentzako indar politikoen iitziak ere kon-tuan hartu behar direla esan zuen.



\nnniivx.

(1. Kap.) Zerga zuzenak	257.750.000	(Iaz 252.480.000)
(2. Kap.) Zeharkako zerguk	50.000.000	(Iaz 60.413.517)
(3. Kap.) Beste lasa eta zerga batzuk	230.549.000	(Iaz 282.215.087)
(4. Kap.) Diru laguntzak	700.750.000	(1 z 681.100.000)
(5. Kap.) Sarrera Patrimonialak	3 025.000	(Iaz 120.000)
(6. Kap.) Inbertsioen enajenazioa ...	500.000	(Iaz 150.000)
(7. Kap.) Bestelako diru laguntzak	0	(Iaz 50.051.396)
GUZTIRA	1 265.000.000	(Iaz 1.332.500.000)


tAITIJAX

(1. Kap.) Pertsonal gastuak	325.223.866	(Iaz 322.503.508)
(2. Kap.) Gaslu arruntak	348.979.387	(Iaz 325.564.129)
(3. Kap.) Interesak	37.983.268	(Iaz 45.846.753)
(4. Kap.) Subentzio arruntak	266.522.353	(Iaz 234.254.232)
(6. Kap.) Inbertsioak	141.686.399	(Iaz 285.385.302)
(7. Kap.) Bestelako dirulaguntzak	23.542.876	(Iaz 0)
(9. Kap.) Maileguen amortizazioa ..	121.061.851	(Iaz 118.946.076)
GUZTIRA	1 265.000.000	(Iaz 1.132.500.000)

tAtTL


AIMM.11TrUX tAIL15.2

arzilfinA



ZOR PUBLIKOA	159.045.119
GESTIO EKONOMIKOIA	Pertsonal gastuak 44.192.278
	Bestelako gastuak 13.460.000
GUZTIRA	216.697397 .. (Iaz 224.860.921)

minT.11 SA1




Agintarien ordainsariak	17.001.834
Dieta, protokolo eta telefono gastuak	2 735.000
Publizitatea eta propaganda	1 650.000
DEBEGESA	8 896.000
Batzordeetako asistentzia	8 750.000
Administrarien ordainsariak	30.510.103
Udallzainen ordainsariak	79.547.943
Erosketak, konponketak, jantziak	6 445.000
Bestelako gastuak	22.487.941
GUZTIRA	178.023.821 ... (Iaz 158.294.147)

uuLArI. rE31-7Ke 1715)re(wix rvin uritA h u u

tHtliZtrak

1v2rEls




ONGIZ ATE ETA OSASUN4	Pertsonal gastuak	39.281.200
	San Lazaro egoitza	38.500.000
	Etxez etxeko laguntza	9 000.000
	Garantiako moduloak	3.800.000
	Kooperazio sozialerako programa	6 189.433
	Prendazko laguntza	7 228.040
	Elkarteei laguntzak	11.950.0110
	Jubilatuena Etxea	7 800.000
	Bestelako gastuak	18.544.248
K ILE GARBIKETA	Pinladak garbilzea	6 000.000
	Kaleko garbitasuna	39 687.716
	Zabor bilketa	44.060.682
Babes Soziala	2 550.000
Hilerria	1 800.000
Konsumitzaileen babesa	2.575.000
Azoka	10.922.140
Gurrutk	249.888.459.	(Iaz 211.226.899)

litLifiTZA a 12,AKALa\ fi twArAL Ltijk (A[K

HIRIGINTZA SAILA	Pertsonal gastuak	66.453.337
	Kaleen konponketa	8 500.000
	Argien konponketa	8 000.000
	Kaleko argi indarraren kontsumoa	14.000.000
	Tresnak eta Erremintak	8 500.000
	INJELAN	2 000.000
	Arkitektuaren ordainsaria	2 000.000
	Inmuebleen konponketa	500.000
	Udaletxe atzeko fatxadaren konponketa	2
	San Pedroko lokal soziala	2 000.000
	Musikeskolako eraikuntza	8 988.739
	Bestelako gastuak	14.690.000
SANE4NIENDIJA, HORNIKETA ETA CREN BANAKETA		
	Pertsonal gastuak	12.657.766
	Instalazioen eta makinaren konponketa	4 000.000
	Energia horniketa	2 500.000
	Ur horniketa	35 300.000
	Kaleetako ur sareak	10.000.000
	Kuitur Etxeko saneamendua	3.000.000
	Ur Kontsorzioa	23.542.876
	Bestelako gastuak	2 260.000
BIDE PUBLIKOAK	Olazarretako trenbide azpiko bidea	10.463.660
	Bide publikoen konponketak	
	Parrokiako berritze lanak	3 000.000
NEKAZAI, GARAPENA	DEBEMEN	3 925.131
	Nekazal inguruneetako lanak	50.000.000
	Bestelakoak	3.050.000
GHIZTIRA		333.830.509 (1' 7 474.646.814)


% 26,39



KULTUR tArrl 1A XPROUA MiZKunrra

HEZKUNTZ	Pertsonal gastuak	3.510.641
	Eskolen gastuak	13.701.800
	Eskolei laguntza	11.361.347
KULTURA	Pertsonal gastuak	12.609.894
	Herriko jaiak	32.500.000
	Pelikulen alogera eta garraioa	8.450.000
	Udal Gazte Batzordea	2.000.000
	Antzezaldean lanak	5 350.000
	Udal Kirol Patronatua	51.827.497
	Musika eta Dantza fundazioa	46.000.000
	Hurtzaindegia	2 745.897
	Zine subentzioak	2 400.000
	Auzoetako jaiak	2 900.000
	Kultur erakundeei laguntza	6 600.000
	Bestelako gastuak	16.870.000
LIBURUTFC,ra	Pertsonal gastuak	2 641.886
	Liburuen erosketa	1 750.000
	Bestelako gastuak	3./35.000
EUSKARA	Pertsonal gastuak	2 704.844
	DEB4BE Euskaltegia	2 564.714
	Elkarteei laguntzak	22.997.294
	Bestelako gastuak	3 639.000
GUZTIRA		286.559.814 (laz 263.471.219)

% 22,65





Osa unean adituak

GAIA:

Opor osteko ajea

Jende askok oporrak osasun arazoei agur esateko garai moduan hartzen ditu. Baina oporretarako lagun, leku edo egun egokiak aukeratu ezean, itzulera gogorra izan daiteke. Horretarako beharrezkoa da oporrak ondo antolatzea.

Estresari aune egiteko opor luze batzuk baino hobekia dira ongi aprobetxatutako egun gutxi. Izan ere, baliteke planak gaizki ateratzea eta honek frustrazioa eragitea. Badira oporretan lanarekin gogoratu eta kezkatu ohi direnak ere. Burua oporretako lekuan izan beharrez lanetik izaten dute.

Oporrak familia giroan pasatu nahi izaten dituzte askok, harremanak hobetzeko. Baina horrek ere arazoak ekar ditzake, horrelakoetan gogoratzen baitira aurrez familian izandako tira-birak. Bakardadea ere arazo sonzaile izan daiteke, batez ere oso sentikorrek diren pertsonentzat.

Oporren ostean berriz lanean hastea asko kostatzen zaigu. Itzulera zenbat eta gertuago egon orduan eta urduriago jarri ohi gara. Loa galtzen dugu, estuasuna nagusitzen da gudan eta gure umorea oso aldakorra izan ohi da. Lanean hasi eta egun batzuk beharko ditugu, oporrak ahazteko eta egunerokotasunera itzultzeko. Itzulera honen gogorra izan ez dadin hona hemen hainbat aholku:

Lanera itzuli baino lehen hurrengo oporrak prestatzen hasi.

Oporretatik bueltan lagunekin eta senideekin elkartu eta oporrei buruz hitz egin

1/3 Itzuli arren oporretako lektia ez ahazteko komenigarria da bisitatutako tokitai buruzko liburuak irakurtzea, eta bertan pasatako momentu onak gogoratzea. Honetarako, argazkiak ikustea ere aproposa izan daiteke.

Zerbait gaizki atera bada, gogoan hartu, hurrengom gauza heragerta ez dadin.

MASAJ ISTAK

Victoria Iraegi

PM Urruzuno, 31 • Tel: 943 74 07 70

..... Egunero: 10:30-13:00 / 15:00-19:00

MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA

Kemen Belardenda (Medikuntza naturala, F. de Bach, masajea, makrobiotika, yoga)

..... San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31

..... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Surya Belardenda (Medikuntza naturala, friodologia, masajea, reiki, yoga. Klaseak eguneko)

..... San Frantzisko, 23 • Tel: 943 74 25 34

..... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

OPTIKAK

Ikus (Optometria, kontaktologia, tonometria, campimetria, audiometria)

..... San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34

..... Jose Artetxe, 10 Tel. 943 15 75 74 (Azpeitia)

..... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri (optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

..... San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59

..... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

..... San Francisco, 12 • Tel: 943 74 35 62

..... Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

PODOLOGOAK

Ibiltzen

..... Ubitarte, 11 • Tel: 943 74 36 56

..... Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

Iñaki Rivero

..... San Bartolome, 28 • Tel: 943 74 32 90

..... Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

PSIKOLOGOAK

Nare psikologoak (Helduak, haurrak eta bikoteak)

..... Isasi 17, 1-B Eibar • Tel: 943 20 05 95

:Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra

Osasunari buruzko kezka bat argitu nahi baduzu, deitu BARREneko 943 74 41 12ra

tarjeta

gazte kutxa

txartela 



Bizitza abentura handi bat duzu. Eta zuku osoa atera nahi badiozu, hemenxe daukazu **GazteKutxa Txartel berria.**

Doakoa da, handik eta hemendik lasai asko ibiltzeko erabil dezakezuna, eta denetarik egin eta nahi duzun guztia erosteko ere aukera emango dizuna. Orain, gainera, abenduaren 31 arte, erosketak musutruk egin ditzakezu "Dohainik Erosi" sustapenaren baitan.

Besterik behar, ala?

www.jaztekutanZ

e-mail: [kutxa@kulkaes](mailto:gazte<span style=)

900 411 41 42

Egin klik! hemrn,
abenturan jarmitu etr3aniak
itatrazi atial izairko.



gazte kutxa

LAB



Donostian, eguerdiko 11:30ean Alderdi Ederren.
Bilbon, eguerdiko 11:30ean Jesusen Bihotza enparantzan.
Gasteizen, eguerdiko 12:00etan Andre Mari Zuriaren plazan.



35 ORDUKO LANASTEA eta SOLDATA SOZIALA

Bilbon, eguerdiko 12:00etan Jesusen Bihotza enparantzan.

LAB

ELA • ESK • STEE-EILAS • EHNE • HIRU

Kill B

Apirilaren 28a
64. zkia

1 1 1 1 1 1 E

MENDAROKO

E HIGARRIA



ilabete honetako argazkia 1964 urte inguruan Mendaroko Eskola Publiko-etan ateratakoa da. Don Cesareo mai-xuaren eta mahaiaren bueltan agertzen diren korbatadunen begiradapean gazetxoakamarari irripartsu begiratu zion argazkian dotore ateratzeko. Garai haietan derrigorrezkoa zen, eta Mendaroko eskolan ere ez zen Franko ge-

neralaren erretraturik falta. Argazkian, goian, ezkerretik eskumara: Lino Jose Larrañaga (t), Jose Luis Arrese, Jose Maria Ansola (t), Angel Ajubita, Don Enrike Saint Girons (1), Don Jose Roteta (t), Ramon Azpiazu, Jose Maria Etxaniz (t) eta Don Cesareo Moreno (t). Aurrean: Manolo Tobajas eta Modesto Oliden.



Zelaikoa, 2
Tel. 943 75 50 58

1973ko kintoot
BAZKARIA

MAIATZAREN 1 ean.
'BUZTINBAIE' soziedadean.

IZEN EMATEA:
'Arrats Pub'ean hilaren 30a,
igandea, baino lehen.

Cordon, Vilarchao, c.b.
DEKORAZIOA

BAOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,
SINTASO1A, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,
GOTELE ERROTILAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke , 7 behea. Tel: 943 74 28 74-74 05 70

Natura

kantail, Aendooko trowdk

Naturak udaberrian ekartzen dizkigu kolore eta kanturik ederrenak. Mendaro, Izarraitz bailararekin bat egiten duen Aranerrekatik nahiz beste aldetik, Arno aldetik, naturgune preziatuen jabe da. Euskal Herriko mendi ibilbide aldizkarietan agertu izan da Mendaro, bai eta Madrilen ere, Izarraitzko parke naturalari lotuta.

‘In Leike’-tik egin dira proposamenak Mendaroko naturguneen sustapenerako. Hor badago lana eta orain beharrezkoenak, Santa Kruz eta Santa Anako parkeetan zakar ontziak jartzea dira. Hemengo pagoak, Atxuriko haritzak eta Haitzbeltz haizuloak zaindu egin behar dira.

Ezusteko bisitariak, saizuriak

(Sultte leonado)

Jakin dugunez, SEO (Estatuko Omitologia Elkarte), penintsula 10x10 km.tako koadranteetan banatuta, koadrante bakoitzeko hegazti espezieen azterketa egitekotan dabil. Mendaron, hegazti bikote harrigarri batek hartu du ostatu aurtengo udaberrian. Saizuri (buitre leonado) ar eta emea ikusi omen dituzte paraje hauetan. Migrariak direnez, duela gutxi iritsi berri dira eta hemen geratzekoak direla dirudi.

Harrapakari zurix-

ka baten irudi, hegalkera pausatu eta zabaleko sarraskijaleak dira. Jakitunentzat, oso harrigarria da horrelako bat ikustea. Izan ere, Penintsula Iberiko osoan bi mila bikote baino gutxiago daude. Putrea baino txikixeagoak, hego zuriekin zeruan erraz nabarmentzen dira. Aintzinako Egipton "Faraolaren oilarra" bezala zen ezaguna eta ingelesez eta frantsesez "egyptian vulture" edo "pernoctere d'Egypte"

izendatzen dituzte kutsu misteriotsua emanaz. Haragi ustelaz gain, intsektuak, arraultzak eta barraskiloak jan ohi ditu. Zerua urratzeraino igotzen da eta ikusmen oso zehatza du. Espezie babestua izan arren, asko egin du behera azken aldian beraien populua.

**Bi saizuri agertu dira
aurten Mendaron.
Penintsula Iberikoan
2.000 bikote baino
gutxiago daude.**

Normalean Nafarroara eta Zuberoara mugatzen da, Mendarotik pasean soilik ikus daitezkelarik. Beraz, hemen geratu izanak harritu egin ditu jakitunak.

Normalean udaberriko txori kantu bakarra kukuarena izaten da. Entzun al duzu aurten? Hala ere, badira hegazti batzuk, oso bereziak eta urriak, Mendaroko izadian bizilekua hautatu dutenak. Ibai Portuk kontatu digu hauen berri. Bera "Mendietako Injinerutza" ikasten ari da Madrilen eta txoriekiko zaletasuna txikitatik dator. Lasalderreko sagastiko abeslariari buruz, lepituliari buruz, egin digu lehenengo aipamena. Lepoa neurririk gabe okertzen omen du txori honek eta aurpegi zatarrak ipintzen du, suge batek bezala mingaina aterata, edozein arrotz izutuko luke. Aipagarriak iruditzen zaizkio lbairi urte guttia hemen pasatzen duten beste bi hegazti, sedentarioak. Beraz, urrubia eta urzozoa dira hizketagai ditugun mendarotarrak.

**Lizarolako urrubiak
(eatado *colnibt*)**

Europan gehien hedatutako hontza da urrubia. Ez du bere lurra abandonatzen, ezta negurik gogorrenetan ere. Basoan bizi da bai-na aspaldian oso hiritartua ageri zaigu zenbait





lekutan, parkeetaraino ere gerturatuaz.


Apirilean erruten du zuhaitzetako zulo-
etako kaban. Hiru bat arraultza izaten ditu
babesteko emeak, arraren laguntzarekin.
Anfibioak, intsektuak eta saguzaharrak
harrapatzen dituzte jateko. Kantari loria-
tsuak dira hormonak ixekitzen zaizkien
udaberriko gauetan.

Ibairan esanetan, "Mendaron, gaueko
lehen orduetan Amo eta Aranerrakako
zuhaitzetatik heltzen zaizkigu beraien
deihadarrak. Gau izartsuetan beraiek dira
Mendaroko basoetako errege, bertako
isiltasuna hautsiz. Hala ere, gau haizetsue-
tan desagertu egiten direla dirudi, guztiz
isiltzen baitira. Apirileko egun hauetan
urrubi arrek beren bizileku bilakatuko den
esparrua aldarrikatzen dute, bertan bame-
ratzen den edozein urrubi erasoz. Martxo-
aren erdi aldera bikotea topatuko dute eta
hildako zuhaitzen batetako zuloa kabi gisa
hartuko. Hortik aurrera emeak arraultzak
erruteari ekingo dio eta arrak saguak eka-
rriko ditu elikatzeke. Kilimoi errekekako
abandonatutako baserrietan ostatu har-
tzea gustuko dute, azken urteotako kalku-
fuen arabera, bi edo hiru kume izaten di-
tuzte kabietan".

Urzozoa, Kilimoiko suziria (*Mitto acuatico*)

Ekialdeko Europako txoria da urzozoa.
Sedentarioa izan arren, neguan mendi al-
tuetatik bailaretara jaisten dira, beti ere
ibai eta erreken zaindari.

Bi saizuri agertu dira aurten Mendaron. Penintsula Iberikoan bi mila bikote baino gutxiago daude.



Orain ariko da bere kabia eraikitzen,
pareta zuloren batean edo seguraski erre-
kekako harri artean edo urjauziren baten ba-
besean izkutatuta. Kabia goroldioz eta

uretako likenez egiten du, izan ere, urpe-
kari bikaina da txori hau. Biak arduratzen
dira emeak ematen dituen 4 edo 6 arraul-
tzetako kumeak zaintzeaz.

Arrantzale abila da, harrigarria. Instant
batean urperatzen da eta arrainak eta
krustazeoak harrapatzen ditu. Urpean mu-
gitzeko hegoekin eragiten du eta korrontea
indartsuegia bada hankekin heltzen die ha-
rri pisutsuei. Bere lumek urpekari jantzirik
onena eskaintzen diote eta neguan izotza-
ren azpian igeri egitera sar daiteke.

Errekak irekitako ubidean gora eta be-
hera makina bat denbora eskaini dio Ibaik
Kilimoiko urzozoiari. "Urzozok dira kilimoi-
ko suziriak. Izugarritzako abiadan errekan
gora eta behera ibiltzen dira. Txori zoraga-
rria da, harrigarria, txundigarria. Txikia de-
nean hegan baino lehen ikasten du murgil-
tzen, amak erakutsita. Azken urteotan maiz
ikusten da Kilimoi errekan; badirudi gure
erreka gustatzen zaiola. Dotorea da, erre-
kan gora abiada bizian doanean bere arbel
koloreko hegoek eta sabel txuri-txuriak
edonor aho zabalik laga dezake. Bere pre-
sentsiaz gure errekek emozioz betez, mo-
mentu oro helarazten duen indar-
tsuaz jabetzen gara. Kilimoi errekan ikusi
izan denez, ehizarako uharte gisako harri
bat aukeratzen du uraren erdian, bertan
hartzen du basea. Bat batean harri gainetik
gertu eta uretan buruz behera sartzen da.
Ikusleak txoria bistatik galdu duela uste
duenean, han agertzen da, hamar-hama-
bost segundu barru, bere kumeei eramate-
ko larbatxoekin. Urte gurtian ikus daiteke
baina batez ere orain, udaberran".



Ur Zerbitzuaren oharra

Ur Zerbitzuak Mendaroko abonatuak jakinarazi nahi die apirilaren 14an 2000. urteko lehen hiruhilabeteko ur eta zabor erreziboak bidali dituztela. Erreklamazioak egiteko 902 30 22 22 telefonora dei dezakete abonatuak. Horretarako azken eguna maiatzaren 15a izango da. Bestalde, azaldu nahi dute berrondatez ordaintzeko azken eguna ekainaren 13a izango dela.

Bertsolari gazteak Eskolarteko Txapelketara

Mendaroko bertso-eskolako hamar ikaslek Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketan hartuko dute parte. Maiatzaren 12an Getarian izango da kanporaketa eta bertso-paperetan arituko dira zortzi mutil eta bi neska. Gaia emanda ordubeteetan idatzi beharko dituzte bertsoak. Beraz, animo herriko bertsolari gaztetxoei.

Plataforma Aktiboak ekintzak antolatu ditu dotozen hilabeteetarako

Gaztetxearen aldeko ekimenaz aparte, lokalaren zai egon gabe, Plataforma Aktiboa ekintzak prestatzen ari da urrengo hilabeteetarako. Arte alternatibo erakusketa antolatzekotan dira, baita sexologia tailerra ere. Bestalde, zehaztu dute Maiatzaren 6an Bilbon izango den Elkartasun egunerako autobusa antolatu dutela. Izena emateko epea zabalik dago eta 'Txirristaka' eta 'Ormola' tabernetan egin ahal izango da.

Upeletan Erronka ikuskizuna maiatzaren 5ean Goñati pilotalekuan



Dantza, bertsoa eta trikitia uztartzen dituen "Upeletan Erronka" ikuskizuna izango da Mendaroko Goñati Pilotalekuan datorren ostiralean, maiatzaren 5ean. Zortzi artista arituko dira bakoitza bere alorrean: Ansorregi eta Larrañagaren trikiti doinuek; Laxok taldeko Jon Maya, Oier Imaz, Iban Agote eta Kimetz Larrañagaren dantzek eta Peñarikano eta Egañaren bertsoek sagardotegi giroan hartuko dute elkar. Zita polita beraz, giro hau gustuko dutenezat. Ikuskizuna maiatzaren 5ean izango da Goñati Pilotalekuan gaueko 22:00etan.

Giro onean ospatu zen Aberri Eguna Utialbiltaren deiarekin bat eginez



Joan den igandean, hilaren 23an, Udalbiltzak deituta, Aberri Eguna ospatu zen Mendaron. Euskal Udaletako ekimenarekin bat eginez EAJ, EA eta EH alderdiek deitu zuten ekitaldia. Dantzariak eta txistulariak alaitu zuten giroa eta pilota partidarik ere ez zen falta izan. Ekitaldiaren unerik hunkigarriena alkateak ikurrina jaso zuenean izan zen, hau da, Udalbiltzak adostutako testua irakurri ondorenean.



Aste honetako erretratu zaharra **Ana Mari Iruretak** laga digu. Club Deportibo Elgoibar futbol taldea Gipuzkoako txapeldun izan zen urtean atera zuten argazki hau Anoetan, 1951. urtean, hain zuzen ere. Elgoibarko futbolak garai hobeak bizi izan dituela erakusteko balio du erretratuak. Honako hauek dira txapeldunen izen-abizenak:

Zutik, ezkerretik hasita: **Jesus Barrenetxea (t), Pedro Gallastegi (t), Jose Maria Lizundia, Fernando Ayesta, Jesus Egaña eta Pako Iriondo.**

Makurtuta, ezkerretik hasita: **Cruz Arriola, Joaquin Loiola (t), Antonio Ansola, Juan Cruz Gabilondo, Jose Maria Igartua, Eulogio Etxeberria, Alberto Loiola (t), Valerio Iñiguez eta Paulo Altuna "Kele" (t).**

Bestela Zinea 3


MAIATZA

"Acordes y Desacuerdos" Woddy Alien-ena

"La fortuna de vivir" Jean Becker-ena

"El viento nos Ievar6" Abbas Kiarostami-rena


"Una historia verdadera" David Lynch-ena



ostegunetan

gaueko **21 :30**ean

Herriko Antzokian



Ongarri Zine Klubaren "Bestelako Zinea" zikloaren 3. zatia martian

Herriko elkarteekin elkarlanean 4 pelikula emango dira

Woddy Allen zinegile ospetsuaren azken filma, "Acordes y desacuerdos" izango da Ongarriren "Bestelako Zinea 3" zikloari hasiera emango diena. Ziklo berri honetan herriko giza eta kultur elkarte ezberdinek hartuko dute parte Ongarriren elkarlanean. Guztira 4 pelikula eskainiko dituzte Ongarrikoek ostegunero gaueko 21:30ean. Zikloaren amaieran, Zine Klubak amaitutzat emango du denboraldia urrira arte.

Lehenengo filma Urruzuno Literatur Taldearen eskutik iritsiko da. "Acordes y desacuerdos" filmean Woddy Allen zuzendariak jazz musikari omenaldi sentitua egiten dio. Aipagarria da Sean Penn aktorearen la-



David Lynch, "Una historia verdadera" filmeko zuzendaria.

na, aktore onenaren oskarretara izendatu baitzuten. Bigarren filma, "La fortuna de vivir" izenburukoa, Haizea E.T. arekin elkarlanean antolatu dute Ongarriko kideek. Filmeak 30. hamarkadako erromantizismoa ekartzen du gogora. Sitgesko zinemaldian ikusieek aukeratu-tako filme onenaren saria eskuratu zuen. Elgoibarko Izarrak, berriz, Kurdistango herriska bateko ohiturak ezagutzeko aukera eskainiko digu "El viento nos llevara" filmearen birtartez. Azkenik, basenitar zahar batek bere anaiaren bila hasiko duen bidaiaria hunkigania eta magikoa azalduko digu "Una historia verdadera", David Lynch zuzendari estatubatuarren azken filma. Herri mugilugabe bidaiatzeko aukera ugari, beraz.

na, aktore onenaren oskarretara izendatu baitzuten. Bigarren filma, "La fortuna de vivir" izenburukoa, Haizea E.T. arekin elkarlanean antolatu dute Ongarriko kideek. Filmeak 30. hamarkadako erromantizismoa ekartzen du gogora. Sitgesko zinemaldian ikusieek aukeratu-tako filme onenaren saria eskuratu zuen. Elgoibarko Izarrak, berriz, Kurdistango herriska bateko ohiturak ezagutzeko aukera eskainiko digu "El viento nos llevara" filmearen birtartez. Azkenik, basenitar zahar batek bere anaiaren bila hasiko duen bidaiaria hunkigania eta magikoa azalduko digu "Una historia verdadera", David Lynch zuzendari estatubatuarren azken filma. Herri mugilugabe bidaiatzeko aukera ugari, beraz.

Bestelako Zinea. 3 MAIATZEAN

Maiatzak 3 eta 4:
Maiatzak 11:
Maiatzak 18:
Maiatzak 25 eta 26:

"Acordes y desacuerdo.s" (Urruzuno L.T.)
"La fortuna de vivir" (Haizea E.T.)
"El viento nos llevara" (Elgoibarko Izarra K.E.)
"Una historia verdadera"

Damian Muñoz danizari eta koreografoak "Ash" ikuskizuna eskainiko du maiatzaren 5ean

5 pertsonaiaren bizitzako azkenengo ordua kontatzen du lanak

"Damian Muñoz danza" konpainiak "Asire" izeneko ikuskizuna eskainiko du ostiralean, maiatzaren 5ean, Herriko Antzokian. Haritz Euskal Dantzari Taldeak Udaren laguntzaz antolatutako saioa gaueko 22:30ean hasiko da. Damian Muñoz dantzari eta koreografo entzutetsua da "Asire" obraren sortzailea, zuzendaria eta baita dantzarietako bat ere.

3.600 segundu. Hau da ikuskizunean 5 per-



"Asire" dantza ikuskizunaren une bat

sonaiaren bizitzako azken ordua kontatzen da. Lehenengo momentuko surrealismo eta dispartateak barne istiluari ernaten dio bide, erantzun gabeko galderi eta esan gabeko hitzei, giza ariman dauden aspirazio hilei, hain zuzen ere. Hau guzti hau, magia, sensualitatea, ironia, bertigoa, mina eta gozotasuna, soinua eta mugimenduarekin batera dauden espazioan gertatzen da, eszenatikian, alegia.

TO
TE

TXE

TAEERNA

Pedro Muguruza 8, behea
Tel. 943 74 19 48

Taiatza
zapatu

24:00

EUSKAL KABARET

Felixa Roderano, "ARRABALERA"



ELGOIBARKOKIZARRA

Laugarren urtez jarraian egin dira Aste Santuko prozesioak Eigoibarren

Erramu domekan eta Pazko igandean izan ziren prozesioak

Herritar askok Aste Santuko egunak oporretarako aprobetxatu baditu ere, izan da jai egunak errezorako erabili dituenik ere. Orain dela lau urte berreskuratu zen prozesioen ohitura eta lau urtez izan du segida. Apirilaren 16an Erramu Domekan elgoibartarrek elizan erramuak bedeinkatzeko aukera izan zuten. Gainera, Parrokia ingurura hurbildu zirenek, Jesus Jerusalemera asto gainean iritsi zeneko antzezpena ikusi ahal izan zuten. Bestalde, Pazko Domekan, apirilaren 23an, Aste Santuko ospakizunei prozesioarekin eman zieten amaiera eliztarrek. 12:00etako mezaren ostean, izan zen prozesioa. Amabirjinaren eta Jesusen



Plazan Amabirjinaren eta Jesusen irudiak elkartu ziren eta agunn dantzatu zuten beraien aurrean, ondoren prozesioa egin zen herriko kaleetan Pazko Domekan.

irudiak Plazan elkartu ondoren, herriko kaleetan prozesioa egin zuten. Elizatik adierazi digutenez, "aurten herritar askok hartu du parte Aste Santuko elizkizunetan eta ekitaldi erlijiosoetan".



AITOR ZABALA

'Bai Euskarar!' plan estrategikoa gizarteratzeko aurkezpena egin zuen Kontseiluak

Gizarte eragileek euskararekiko konpromisoak hartzea da hurrengo pausoa

4

ai Euskarari' plan estrategikoa gizartera zabaltze-

ko herriz herri bilerak egiten ari da Kontseilua. Elgoibarren joan den apirilaren 13an Kultur Etxean aurkeztu zen plan estrategikoa. Orain arte kontseiluak egindako lanak azaltzeaz gain, konpromisoaren garaia heldu dela adierazi zuten. Maiatzera arte gizarte eragileek konpromisoak hartu beharko dituzte Konpromisoen artean daude, besteak beste, publizitatea euskaraz egitea, zati bat bada ere, kanpo harremanak eta komunikazioak euskaraz egitea...

Maiatzaren 31ra bitartean konpromisoak hartuko dituzte gizarte eragileek, baina lan hori egiteko euskaldunen lagun-



tza ezinbestekoa dela azpimarratu zuten aurkezpenean. Horretarako, norberak gertu daukan gizarte eragileengana jo dezake informazio eske. Elgoibarren hauek dira besteak beste Bai Euskarari akordioa sinatu zuten elkarte eta erakundeak: Danobat, Jubilatuen Etxea, Ongarri Zine Kluba, C.D. Elgoibar, Euskadiko Kutxa, Gipuzkoa Donostia Kutxa, Txankakua, Debemen...

Maiatzaren 31n konpromiso minimoak hartzen dituzten eragileek Bai Euskarari zurtzagiria jasoko dute Kontseiluaren eskutik, Agfri hau konpromisoak bete ahala urtez urte berrituko da, eta eskaintako zerbitzu kalitatearen erakusle izango da.



Alderdi abertzaleek ekitaldi hateratua egin zuten Aberri Eguna ospatzeko

Joan den igandean, apirilaren 23an, alderdi abertzaleek ekitaldi bateratua egin zuten Aberri eguna ospatzeko. Plazan hainbat elgoibartar elkartu ziren, tartean alderdi politikoetako ordezkariak ere. EAJ-PNV, EH eta EA alderdiek deitutako kale agerrian lehendabizi ikurrina jaso zuten udaletxean eta ondoren Udalbiltzak onartutako komunikatua irakurri zuten.



Iñaki Jaio preso elgoihartarrak gose greba hasi du

Hueseako espetxean preso dagoen Iñaki Jaio elgoihartarrak gose greba hasi zuen joan den apirilaren 23an. Presoen egoera salatzeko eta beraien eskubideak aldarrikatzeko egingo du baraualdia. Jaiori elkartasuna

adierazteko gaur, hilak 28, kontzentrazioa izango da Plaza Handian arratsaldeko 20:00etan Euskal Presoak Euskal Herrira Plataformak deituta.

Pilar ikastetxeak Plentzian

Pilar ikastetxeko 6. mailako 31 ikasle Plentzian izan ziren apirilean hainbat egun pasatzen Jesus Mari irakaslearekin. Bertan, Gorlizko ur depuradora, hondartza eta Plentzia herria bisitatu zituzten. Jubilatuen etxean egin zuten lo eta esan digutenez, oso ongi pasatu zuten eta berriz bertara joateko deiatzen daude. Argazkian Elgoibarko ikasleak beraien begira-leekin agertzen dira.



• Ur, zabor eta estolderia zergak

Elgoibarko Udaletik adierazi nahi dute 2000. urteko lehen hiruhilabeteko ur, zabor eta estolderia zergak ordaintzeko azken eguna, bihar, apirilak 29 izango dela. Horretarako Udaletxera edo banku zein aurrezki kuxetara jo beharko da Eguna heltzean ordaindu ez dutenek %20 gehiago ordaindu beharko dute. 13estalde, Udaletik zerga hauek helbideratzea gomendatzen dute, horrela, ordainketa errazten baita.

• Establezimenduetan pubblitate errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak emango ditu Udalak

Euskararen Udal Ordenantzak esandakoa kontuan hartuz, bere establezimenduan euskara hutsean idatzitako errotulua jartzen dutenei, errotuluaren kostuaren %30 emango dio Udalak, beti ere kopurua gehienez 30.000 pezetatik beherakoa denean. Horretarako beharrezkoa izango da errotulua euskaraz ondo idatzita egotea eta hori Euskara Zerbitzuak ziurtatuko du. Hala ere, Udalak ez du dirulaguntzarik emango errotuluetan izena edo izen-abizenak bakarrik agertzen direnean. Dirulaguntzen bidez herritarrak errotuluak euskaraz jartzera animatu nahi ditu Euskara Batzordeak. Informazio gehiago edo errotulua euskaraz jartzeko laguntza nahi izanez gero, Euskara Zerbitzura dei dezakezue (943 74 43 66) edo Kultur Etxeko bulegora joan.



Lehen musika emanaldia egin zen 'Toletser tabernan

Inaugurazio ekitaldiaren ondoren, joan den apirilaren 14an, lehendabiziko musika saioa izan zen 'Toletxe' tabernan. Bertan, Naroa Garziak eta Maria Agirrek biolontxelo eta piano kontzertua eskaini zuten. Ondoren, akordeoi orkestraren txanda etorri zen eta Maite Janeiroren zuzendaritzapean baltsa, tangoa eta beste hainbat pieza jo zituzten. Toletxera gerturatutakoek gustura pasa zuten ostiral gaua.



"Gimnasia erritmikoan arn/ako ensa behar dau



Carmen Lendinez

- Adina: 14 urte.
- Zaletasunak: Kirola egitea gustatzen zait, futboleko jokatzeari, adibidez. Zinera joatea ere gustatzen zait.
- **Musika moeta bat?** Pop musika gustatzen zait, Mariah Carey eta antzerakoak.
- **Miresten duzun gimnastarik?** Elena Vitrichencko errusiarra.

-Noiz eta nola hasi zinen gimnasia erritmikoan? -Orain dela 3 urte hasi nintzen gimnasia erritmikoa egiten. Telebistan ikusi nuen kirol hau lehen aldiz eta oso ikusgarria iruditu zitzaidan, elastizitateak erakarri ninduen batez ere.

-Ez da oso kirol ezaguna Elgoibarren, ezta? Eta Euskal Herrian? -Elgoibarren ez dauka jarraitzaile askorik. Momentu honetan 10 lagun besterik ez gaude. Euskal Herrian, berriz, gimnasta asko dago. Gainera, maila handikoak.

-Asteazkenen entrenamenduetan zaretu? -Asteazken bi egunetan entrenamenduetan dugu Kiroldegian, eta txapelketaren bat baldin badugu, gehiagotan.

-Kanpotik begiratuta oso kirol sakrifikatua ematen du: dietak, entrenamenduak.... gogorra al da?

-Bai, gogorra da. Piska bat serio hartu nahi izanez gero, dieta berezia jarraitu behar da. Janaren ordez bitamina batzuk hartu behar izaten ditugu, baina ni jatuna naiz, eta kosta egiten zait dieta jarraitzea. Hala ere, berdurak asko jateko agintzen digute, eta txokolata, adibidez, debekatuta daukagu. Zenbait ariketa ikastea ere gogorra da, asko saiatu beharra dago, baina lortzen duzunean poza ere handiagoa da.

-Zein da kirol hau egiten hasteko adinik aproposena? Oso karrera motza izaten da gimnastena, ezta? -Zenbat eta bizkorrago hobe, gorputza ohitzea komeni baita. Nahi izanez gero 4 urterekin has daiteke gimnasia egiten. Hala ere, adinik aproposena 7 urte dela diote. Bestalde, egia da gimnasten karrera oso motza izaten dela, 24 urtetik gora dituzten gimnastak ikustea zaila da.

-Zenbat modalitate edo tresna daude? -Sei tresna daude; pilota, mazak, aroa, zinta, soka eta esku libreak. Gehien gustatzen zaizkidanak soka eta pilota dira. Txapelketetara joaten garenean, tresna hauek batekin prestatutako koreografia aurkezten dugu epaile batzuren aurrean. Ariketaren musika ere guk aukeratzen dugu. Derrigorrez egin behar ditugun mugimendu batzuk ere badaude. Partaide guztiok egin behar ditugun mugimenduak dira eta epaileek puntuatu egiten dituzte.

-Zer ezaugarri behar dira gimnasta on bat izateko? -Garrantzitsuenak kirol hau gogoko izatea da. Gai nontzean, gorputz malgua edo elastikoa izatea beharrezkoa da, baita naturaltasunez mugitzen jakitea ere, gimnasia erritmikoan aritzeko artea izan behar baita.

KIROL ALBISTEAK

• irabz Solabarrietak Zarauzko Gimnasia Erritmiko Txapelketan 5. egun zuten

'Ibai' Kirol Elkartearen 5 gimnastek hartu zuten parte Zarauzko Gimnasia Erritmiko Txapelketan. Gipuzkoako Eskolarteko Gimnasia Erritmiko Txapelketarako finalistak erabakitzeke balia garria zen Zarauzko zita eta elgoibarrar gazteek maila ona erakutsi zuten. Gehienek postu onak lortu zituzten arren, Iraitz Solabarrietak bakarrik lortu zuen finalerako xartela. Honako hauek izan ziren elgoibarrarrek lortutako postuak:

INFANTILAK (AROAREKIN)	ALEBINAK (SOKAREKIN)
Iraitz Solabarrieta (5.) Maria Idiakez (14.)	Miren Mugerza (12.) Enara Arquillo (13.) Liemi Maguregi (19.)

Xabi Gonzalez eta Gorka Garate Lutxa Libreko Euskadiko txapeladun

Ibai Kirol Elkartearen Xabi Gonzalez eta Gorka Garate elgoibarrarrek urrezko domina bana irabazi zuten Euskadiko Txapelketan. Gasteizen jokatu zen txapelketan kadete eta junior mailako borrokalariak aritu ziren lehian. Xabi Gonzalezek urrezko



domina irabazi zuen, kadete mailan, 58 kg. tik beherako pisuan. Maila berean Andoni Garcia bigarren izan zen 54 kg. z azpiko kategorian. Gorka Garatek, urrezko domina irabazi zuen 85 kg. tik beherako pisuan eta bera da Euskadiko txapeladun berria. Emaizta hauei esker elgoibarrarrek Euzkoaren Lutxa Libre Txapelketan parte hartzeko xartela eskuratu dute. Maiatzaren 12an, 13an eta 14an Granadan jokatu da txapelketa. Iaz 3 domina irabazi zituzten elgoibarrarrek Espainiako Txapelketan.

IMH eskubaloi taldea Euskadiko junior mailako txapelkun

Pagoaga eta Unceta nesken eskubaloi taldeak
Euskadiko txapelkunorde geratu dira

IMH eskubaloi taldeak mutilen junior mailako Euskadiko Txapelketa irabazi du. Ormaiztegiaren aurka jokatu zuten finala eta 25 eta 9 irabazi zuten elgoibartarrek, euren nagusitasuna lehen unetik argi utziz. Hemendik aurrera, ordea, erronka handiagoei egin behar ko diete aurre IMHko jokalariek. Lehenik eta behin, Asturiasen jokatu den Espainiako Txapelketa Euskadi ordezkatu du gaur hasi eta igandera bitartean (apirilaren 28, 29 eta 30ean). Bien bitartean bigarren nazional mailan jokatzeko igoera fasean ari dira parte hartzen.

Bestalde, nesken kadete eta jubeniil mailako Euskadiko Eskubaloi Txapelketa amaitu berri da, eta elgoibartarrek emaitza bikainak lortu dituzte. Unceta Elgoibar jubeni eta Pagoaga Elgoibar kadeteak, bi ekipoak Euskadiko txapelkunorde izan dira. Pagoaga taldeko neskek Euskadiko txapelkun izan ziren iaz, baina aurten bigarren postuarekin konformatu behar izan dute. Dena dela, den-



Ligako azpi txapelkun izan ostean, Unceta Elgoibar taldeak Espainiako Txapelketa hartuko du parte apirilaren 28, 29 eta 30ean, Leonen.

boraldi ona egin dute, liga osoan 3 partidu bakarrik galdu dituzte-eta. Unceta taldeko jubeniak, berriz, 2 partidu galdu eta bakarra berdindu dute. Emaitza hauei esker, iazko hirugarren postua hobetu dute aurtengoan. Postu honek Espainiako Txapelketa jokatzeko baimena eman die. Sektorea Leonen jokatu da apirilaren 28, 29 eta 30ean. Bertan, Galiziako, Gaztela-Leoiko eta Andaluziako taldeekin neurtuko dituzte indarrak Uncetakoek.

Egoitz Morak Mingezko domina lortu du Fuengirolako Nazioarteko Torneoan

Egoitz Mora Ulazia elgoibartar gaztea Fuengirolan 5 eguneko kontzentratuta egon da Espainiako selekzioaren judoekin batera eta bertako Nazioarteko Judo Torneoan hartu du parte. Torneoan honako talde hauek hartu zuten parte: Portugalgo selekzioaren 2 talde, Andaluziako selekzioaren 2 talde, Galiziako selekzioak eta Espainiako selekzioaren A, B eta C taldeak. Egoitz A taldearekin aritu zen, 90 kg. tik beherako pisuan hain zuzen ere, eta oso erraz irabazi zituen 3 konbateak: lehenengoan Andaluzia B taldeko partaidearen kontra; bigarrenean Espainiako selekzioaren C taldearen



Spainiako judo selekzioarekin bost eguneko kontzentratuta egonda Egoitz Fuengirolan.

kontra Ippon baten bitartez; eta finalean Espainiako 17 urtetik beherako txapelkunaren kontra tokatu zitzaion (Galiziako selekzioaren partaide) eta segundo gutxitan irabazi zion.

4 / 1 ATA' IF IK

Futbola

San Pedro 0 - Haundi 1 (3. maila)
Pedrusko 1 - Elgoibar 0 (1. erreg.)
Elgoibar 5 - Pasajes 1 (01m. inl.)
Elgoibar 3 - Tolosa 1 (2. kad.)
Aretxabaleta 3 - Elgoibar 2 (Jub. E.L.)

Eskubaloia

IMH Elg.18- Ormaiztegi 23 (Junior mut.)
Tecnomeca Elg. 22 - Esolapios 20 (Kad. mut.)
Pneumax Elg.15- Escolapios 28 (Jub. mut.)
IMH Elg. 25 - Ormaiztegi 9 (Senior mut.)
IMH Elg. 23 - Amenabar 22 (Senior mut.)
Pagoaga Elg.14 - Aloñamendi 7 (Kad. nes.)
Unceta Elg.14 - AlotiamediB(Jub. nes.)
IMS Elg. 20 - Pulpo 19 (Senior nes.)

Idarraga Kafek 3. saria

HAUNDIko jokalaririk erregularrena 99100
JOKALARIA PUNTUAK

1- Aranberri	33
2- Loren	29
3- Zulaika	28
4- Castro	27
5- Castillo	26
6- Ibarluzea	26
7- Alberdi	23
8- Polo	21
9- Bag	20
10- I. Leonardo	17
11- Bravo	16
12- Diaz	15
13- Caro	13
14- Mikel	12
15- Ruiz	8
16- Guarrotxena	6
17- Manolo Ramos	4
18- Alkorta	4
19- Txasio	4
20- Edu	8
21- Fernandez	2

A G E , a l A

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 29
16:00 Gaur Elg. - Arrate 1Kad. mut.)



Maria Fernandez Penedo

(1938-1982)



Savonia

Sonia Mancisidor 27 urteko elgoibartarrak oso gaztetatik zeukan argi mundua ezagutzeko gogoia zuela. IMHn 2 urtez Alemaniera ikasten jardun

ostean, Alemnaniara joan zen 20 urte besterik ez zituenean. "Alemana hobeto ikastea eta Elgoibartik kanpo dagoen mundua eta gauza berriak ezagutzea nahi nuen". Munster herrian (Coloniatik gertu) urtebetez au-pair edo umezain lanean aritu ostean, selektibitatea prestatzen hasi zen eta baita atera ere. "Ikasi eta lan biak batera egitea gogorra izan zen. Are gehiago, oraindik hizkuntza guztiz menderatzen ez nuelako, baina oso aberasgarria izan zen, etxetik hurrun bakarrik bizitzen ikasi bainuen. Inoiz ahaztuko ez ditudan 3 une pasa nituen eta lagun asko egin gainera". Senarra ere Alemanian topatu zuen Soniak, baina leku berriak ezagutu eta gauza berriak ikasteko gogo gehiago zuen, Cardiff-era (Galesen) bizitzera joan zen senarrarekin batera. Orain enpresaritzatza ikasten ari da Cardiff-eko unibertsitatean eta komertzioetarako ekiparnendua exportatzen duen enpresa alemaniar batean egiten du lan. Cardiff gazteluz betetako hiri polita dela azaldu digu eta euskaldun asko daudela bertan, "Euskal Herriaren antzerakoa delako daudela horrenbeste euskaldun uste dut. Hemen ere ez dituzte ingelesak gogoko eta beraien hizkuntza propioa dute".

41111.

bidai agentziak babestutako atala

Foruen enparantza, 3
Tel: 943 74 39 12



- 1938ko abenduaren 24an jaio zen Orenseko Mazedera herrian. 8 anai-arreba izan ziren, bera bosgarrena. Umetan herriko eskolan ibili zen 12 urte ingurura arte; sasoi hau etxeko lanak eta errekadu batzuk eginaz eta auzoko lagunekin jolasean pasa zuen. Gaztaroa, etxeko, baratze-ko, frutategiko eta soroko lanak egiten pasa zuen, laborari etxekoa baitzen.
- Kozkortu zenean, gogokoak zituen bere herrian Andra Mari Zuriaren omenez abuztuan egiten ziren jaiak. Lagun koadrilarekin batera Almoite. Esgos, Batios de Melgar etab.eko jaietara eta erromerietara joatea ere gogoko zuen.
- 18 urterekin Elgoibarrera etorri zen bere ahizpak hemen zeukan 'Bar Celta' tabernan (egun "Txuri-Beltz" taberna dagoen lekuan) lan egitera eta bi urte pasa zituen bertan. Bere koinatua, Juan, Elgoibarren famili ezaguna den 'Rey Quiroga' ta'na zen. Geroago ahizpak zeukan txarkuterian hasi zen lanean (egun Larrañaga inmobiliaria) dagoen Iekuan. Urtebete pasa ostean eta herritar mordoa ezagututa berriz ere bere jaioterrira itzuli zen emakume atsegin hau. Egiten dituzten azokegatik da ezaguna Mazedera eta Maria oso estimatua zen bere herrian.
- Mazedan bi urte pasa eta Elgoibarrera etorri zen bertiz ere. Lehengo lan berdinetan hasi zen ahizparekin batera. Geroago, Pilar Ikastetxean hasi zen sukaldari lanetan.
- 1967ko abenduaren 26an ezkondu zen Elgoibarren Burgosko Huerta Del Rey heniko Luis Santamariarekin (urte askoan "Zubi Ondo" Elkarteko bazkidea izandakoa). 5 seme-alaba izan zituzten: Mari Cannen, Juana, Rosa, Nieves, Luis eta Javi. Guztiak Elgoibarren jaiok. Maria gustura finkatu zen hemen, eta familia ederra hazi zuen etxeko lanak eginaz.
- Langilea, alai eta emakume ezaguna zen. Lagun asko egin zituen. Familia, airopa jostea, lagunartea eta paseatzea zituen zaletasmen artean sinismeneko emakume honek.
- Oraindik sasoi ona zuela, 1982ko azaroaren 19an hil zen 44 urte zituela.

Juanito Gorostiza

Lanbroa

Pedra Muguruza, 5
Tel: 943 74 08 06
20870 ELGOIBA R

OIERKI
IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

Y 943 20 35 15
ABERIAK 943 20 31 25
Bista Eder, 11 (sotanoa)
e 20600 EIBAR

Aste ^{#15} | uko opor | ok NON?

Aste Santuko oporrak aprobetxatuz Elgoibarko gazte askok kanpora egin du eskapadaxoa. Eguzkitan egondakoak kolore piska batekin etorri badira ere, gure artera ekarri ditugunek ez dute Mediterraneoko eguraldi zoragarria ezagutzeko aukerarik izan. Kanbon, izan da Hodei Otegi beste 20 elgoibartarrekin eta Galizian, berriz, Amaia, Judith eta Maite, beraien beste bi lagunekin batera. Berbetan jardun gara eta oporretako ibilera batzuk kontatu dizkigute.

Hodei Otegi Elgoibarko beste 20 gazterekin batera Kanbon izan da, Jarrai eta Gazteriak taldeek bi urtean behin antolatu ohi duten Gazte Topagunean.

Autoz zein autobusez joan dira bertara eta kanpinean pasatu dituzte biru egun. Bertan kanpin dendez gain txoznak eta katpak ere jarri ziren kontzertuetarako, ekitaldiatarako, hitzaldie-



tarako... Ongi pasatzera ezezik lanera eta informazio bila ere joan dira. "Bilerak, ekitaldixak, manifak... danetik egon zan. Jarrai eta Gazteriak baterau in bihar ziala ikusitxa pentsau gendun hara jun, informaziva jaso eta ondo pasatzia". Jendearen partehartzea nabarmendu digu Hodeik. "25.000 lagun inguru elkartu gera eta gainera bi taldiak bateratu dia eta Haika sortu da". Egun baten euria egin arren, oro har eguraldia lagun izan dute eta antolakuntza ere oso ona izan omen da, "gauza guztiak gertu zaozen eta ez dogu inungo problemarik euki". Elgoibartarrak Kanbon informazioa jaso eta ekitaldi zein kontzertuetan gozatzeaz gain, lan piska bat ere egin dute. "Tabeman egon ginan gu eta elgoibarko beste batzuk garbiketa eta segurtasun taldietan ere egon zian". Bi urtez behin egiten da Gazte Topagunea eta ongi pasatu dutela ikusita baliteke urrengoan ere berriz itzultzea, beste toki baten izango da, baina giro ona ziurra omen da horrelako leku batean.

KAN

BO

Amaia, Judith, Maite, Mentxu eta Ziortza Galizian izan dira Aste Santuan. Iaz Portugalera egindako bidaian gogoia piztu eta autoa hartu ta Galiziako parajeak ezagutzeko eskapadaxoa egin dute.



Orensetik hasi eta Coruña arteko bidea herriak ezagutzen egin dute. "Lehenengo eguna Allariz, Amerca,, ezagutzen pasau gendun. Elgoibarko jendiakin juntau ginan eta inbitau in gintxuzten". Eguraldia ez dute lagun izan, oporretako egunak euripean igaro baitituzte. "Egtuuldixak limitau in gaitxu. Herri oso politxak zaozen baina hainbeste euri zauan ez ginala kotxetik jaitsi ere in". Lotaroko lekua ere herrietara iritsi ahala aurkitu dute. "Gabero nunbaitxera heldu eta leku bila hasten ginan. Galdetu eta preziva onabazan bertan geratzen ginan. Nonnalian hostala aukeratzen gendun merkiaua zalako. Santiagon dana beteta zauan eta gauza kurioso bat pasau jakun. Kotxian geunden eta andra zahar bat etorri jakun ia etxe bila gabizen galdetzen. Bildur piska batekin baina berak zakan pisu batera jun ginan". Azken egunean Conulan izan ziren Realaren partidua ikusten, "Coniara heldu eta Elgoibarkuekin juntau ginan, eta egunez juerga in gendun bertan". Buelta kostatik egin dute eta hainbeste gustatu zaienez datorren urtean Asturias eta Santandeffera joatea pentsatu dute.

4((
N
GALIZIA

INTERESHO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia 943 032610
 Planning-a 943 742950
 Alkoholiko Anonimoak . 943740385
 D.YA (anbulant) . 943 464622
 Gurutze Gorria . 943 743864
 Mendaroko Ospitalea .. 943 032800
 Odol Emaileak 943 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak .. 943 740442
 PESA (Eibar) . 902 10 12 10
 Taxi geltokia . 943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua... 943 744366
 Udal Kirol Patronatua.. 943 744415
 Kultura Zerbitzua.. 943 742158
 I Mendaroko Udala... 943 756100
 Ongizate zerbitzua.. 943741008
 Udaletxea 943 741050
 Udalzaingoa... .. 943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra ... 943 741626
 Kirolegia 943 744415
 Kontsumo Bulegoa ... 943 743088
 Liburutogia 943 743525
 Musika Eskola 943 742145
 Mintxeta 943 744315
 Parrokia 943 740842
 Postetxea 943 741547
 Gaztetxea 943 743572

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza.. 943 740296
 Zaharren Biltokia ... 943 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola . . 943 74 21 41
 HHI (EPA) . . 943 74 08 80
 Herri Eskola . 943 74 08 79
 I.M.H. 943 74 41 32
 Institutua
 Arreiturre . . 943 74 80 19
 Ezonarro (Meka).. 943 74 80 19
 Ikastola 943 74 44 41
 Pilar Ikastetxea..... 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 943 74 41 12
 El Diario Vasno ... 943 74 40 73
 El Gorreo Español.. 943 74 10 82
 Zazpiki irratia 943 74 34 74

28
ostirala

19:00 PINTURA
ERAKUSKETAREN
INAUGURAZIOA
 Margolaria: Jose Quintana
 Kultur Etxean
 Maiatzaren 14ra arte

20:00 KONTZENTRAZIOA

Ifiaki Jaio Preso
 elgoibartarrarekin
 elkartasuna
 Plaza Handian
 Antolatzailea:
 Euskal Presoak Euskal
 Herrira Plataforma

22:15 ZINEA
 "American Beauty"

2
larun a a

19:30-22:15 ZINEA
 "American Beauty"

3P
igandea

16:30 ZINEA
 "Bowfinger el picaro"

19:30-22:15 ZINEA
 "American Beauty"

1
astelehena

19:30-22:15 ZINEA
 "American Beauty"

3
asteazkena

11:00 SANTA KRUZeko
MEZA
 San Rokeko baselizan

21:30 ZINE KLUBA
 "Acordes y desacuerdos"

4
osteguna

21:30 ZINE KLUBA
 "Acordes y desacuerdos"

5
ostirala

22:30 DANTZA
IKUSKIZUNA
 "Asire"
 Taldea: Damian Muñoz
 Dantza konpainia
 Herriko Antzokian
 Antolatzailea:
 Musika Fundazioa

11
NE
A



Zuzendaria: Sam Mendes.
Antzezleak: Kevin Spacey,
Annette Bening, Thora Birch.

"American Beauty"

Lester Burnham (Kevin Spacey) ongizate gizartean bizi den 40 urteko pertsona batek izan dezakeen guztiaren jabe da; lan egonkorra du, emazte eder eta independentea, alaba bat eta etxe eder bat auzo zoragarri batean, bi hitzetan "arnerikar ametsa" egi bihurtzetik hurbil dago. Hala ere, begiak irekiko ditu eta errealitate gordina ezagutuko du, lanetik botatzeko zorian daude, ia ez du bere alaba ezagutzen, emazteak gorrotoa dio, eta baita berak bere buruari ere.

• **Estres egoerak gainditzeko Sofrologia ikastaroa**

Gurasoen formakuntza programari jarraituz, Elgoibarko Herri Eskolako Gurasoen Elkarteak eta Udalak sofrologia ikastaroa eskainiko dute maiatzaren 13art eta 20an Kultur Etxean. Pepe Romo maisuak erlajazio teknikak eta estresa gainditzeko moduak irakatsiko ditu. Klaseak goizeko 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:00etara izango dira Kultur Etxean. Prezioa 3.000 pezetakoa da, Norbait interesatuta egonez gero, 943 74 10 08 telefonora deitu (8:00etatik 15:00etara). 10 lagunen-tzat bakarrik dago lekua.

• **Euskal Kabareta IToletxer tabernan**

Felisa Roderano "Arrabalera" k euskal kabareta ezagutzeko aukera eskainiko die maiatzaren 6an, zapatuan, 'Toletxe' tabernara hurbiltzen diren guztiei. Rita Aldai aktore eta abeslariak maitasunari kantatzen dio Felisa Roderano "La Arrabalera" ikuskizunean. Maitasunari kantatzen dio, baina ez minari bakarrik. Badaki sufrimenduari barre egiten eta ikusleak algaraz leherrarazten. Rita Aldai duela 35 urte jaio zen Aian, eta txiki-lxikitatik abesten ditu Coneha Piquerren eta Edith Piafen kantak. Saioa gauerdian hasiko da, 24:00etan.

• **Antzerki material ikastaroa Gaztetxean**

Ekekei Antzerki Taldekoak material ikastaroa antolatzen kotan dabilta. Ikastaroan parte hartzeko prest dagoen jende nahikoa dagoen jakin nahi dute aurrez. Hori dela eta, maiatzaren 6an, larunbata, bilera egingo dute Gaztetxean eguerdiko 12:00etan. Ikastaroan parte hartu nahi dutenek bertan agertzea besterik ez dute. Ikastaroa maiatzetik aurrera uda osoan zehar izango litzateke, eta antzerki materialak erabiltzen ikasteaz gain, antzezlan bat prestatzeko asmoa dute, urrian antzerkilari amateurren topaketak izango baitira Elgoibarren.

• **laterar plataformaren lehen kontzentrazioa hilaren 6an Mendaron**

Apirilean, presoan eskubideen aldeko 'Batera' plataforma Mendaro sortzeko hizketan jardun dira Mendaroko EAJ-PNV, EA eta EH alderdiak, Mendaroko Plataforma Aktibak deituta. EAJ-PNVk hasieratik garbi utzi nahi izan du presoan eskubideak errespetatzen dituela, baina maila nazionalen hartu duten posturari jarraituz 'Batera'n sartzea 'suspentsioan' utzi dute oraingoz. Horrela bada, 'Bateral (EA, EH eta Senideak taldearen adostasunarekin) presoan eskubideen aldeko errespetua aldarrikatuz, bileko lehen larunbatean eguerdiko 12:00etan udaletxe aurrean egingo den kontzentrazioetara joateko deia egiten diete mendarotarrei, baita herriko ellcarteei ere. Lehenengo maiatzaren 6an izango da.

• **Salsa ikastaroa IAzkenaw danizallekuan**

'Azkena' daritzalekuak hasiberrientzako salsa ikastaroa antolatu du. Arlen izango da irakaslea, eta maiatzaren 3tik aurrera asteazkeneko erritmo latinoak irakatsiko ditu 'Azkena' dantzalekuan. Klaseak arratsaldeko 20:30ean basiko dira eta gaueko 22:30ean amaitu. Izena-ernateko bertara azaltzearekin nahikoa da edo bestela 630830222 telefonora deitu.

1 52

FAR MAZIAK

	Egunez	Gauez
29	Yudego	Yudego
30	Yudego	Yudego
1	Escala	Escala
2	Etxeberria Etxeberria (Santa Ana kalean)	
3	Fernandez Fernandez	
4	Yudego	Yudego
5	Zabaleta	Zabaleta

ESCALA: Rekalde, 1 Soraluze, Tel: 943 75 16 38
 J. IGNACIO FERNANDEZ
 Herriko enparantia 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
 ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

30 igantlea Zahaleta
 1 astelehena Idarraqa

GARRI
 e kluba



Zuzendaria: Woddy Allen.
 Antzezleak: Sean Penn, Samantha Morton, Umma Thurinan.

"Acordes y desacuerdos"

Woddy Allenek 30. hamarkadako amerikar kokatu du bere azken pelikularen istorioa. Oraingoan inoiz existitu ez zen jazz musikari baten biografia bitxia kontatuko digu. Emmeret Ray; lapurreta, jokua eta patarra atsegin dituen gizatxar bat da, baina baita gitarjole bikaina ere. Dyango Reinhardt frantziako musikari ijitoa mires-ten du, eta Dyangok egin zuen moduan jazz musika eta folklore zingaroa uztartu nahi ditu haren parera ailegatzeko.

111 1 111 IE 111 11 11 la 11 11 III 1111

ZZEI

Lana

• ESKAINTZA •

- Ilepaintzaile titulua duen neska euskalduna behar da a.stebukaeretan hut egiteko. tr 943 74 18 64
- Etxeko lanak egiteko eta haurra zaintzeko neska behar da Mendanor. a 617 88 08 89
- Administrari lanak egiteko pertsona bat behar da. Bidali Curriculumak Elgoibarko 206 posta kutxatilara.
- Martxan dagoen garbitasun enpresa salgai, negozioaz arduratu ezina dela-eta. Makinaria eta furgonetarekin. Hilabeteko irabazia zturtatuta (450-500 mila pezeta). t• 629 40 47 82
- Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egiteko. Goizeko 9:00etatik arratsaldeko 16:00ak arte. a 943 12 02 20
- Kamareroa behar da Malape tabemarako.n 943 74 19 43

• ESKAERA •

- Neska eskaintzen da tabernetan edo jatenceetan garbiketa lanak egiteko. Larunbat gauean eta igandetan egun osoz. s 943 74 36 38.

Etxebizitzak

- Pisua alokatu nahi nuke ekaineko. Altzarickin.tr 943 74 82 80 (Eduerne)
- Etxe txiki bat behar dut Elgoibarren. tr 636 73 75 70
- Etxea salgai Errosario kaleko 24. zenbakian. 60m². Guztiz berri-tua. sp 943 74 14 71
- Pisua salgai Iñiguez de Karkizako kalean.tr 943 73 13 63
- 3 gelako pisua erosiko nuke Elgoibarren.te 943 74 13 11 (Jabi)

Partikularrak

- Enpresaritzak ikasten ari naiz eta rinantza matematika, konrabilitatea, mikroekonomia eta informatikako klase partikularrak behar ditut. Norbait emateko prest balego deitu telefono honetara: ti 943 74 41 64 (Jon)

Salerosketak

- Boxer eta artzai aleman txakurkumeak salgai. Pedigreearekin. 12 696 05 73 46
- Gurgildun aulkia erosiko nuke. n• 943 74 19 33 (Gauetz deitu)
- Kanpin denda familiaña salgai. Altua da eta betri-betria. Toldoarekin. te 943 74 05 37
- Ford Fiesta ciiesela salgai. SS-4270-AZ. it 943 19 90 451 600 64 54 64
- Opel Kadett GSI 2.0i salgai. SS-9046-AH. it 943 74 21 99/943 74 40 69
- Toyota tejedora salgai. 943 74 40 48/943 74 07 06
- Mobiletea salgai. it 943 74 40 48/943 74 07 06
- Volkswagen Golf GTI SS-6396-AH salgai. ts 943 74 05 86/943 75 12 38

Besteakoak

- Neskaz edo mutilez osatutako pisu konpartitu hatean logela bila nabil. tr 943 74 31 75 (Gauetz deitu)
- Katezko pultsera bat galdu nuen apirilaren 16an. Norbaitek zerhait baleki deitu 943 74 35 07 telefonora.
- Urrezko pultsera bat galdu nuen Ura.sandiko parkean. Alejandra izena dauka idatzita. Aurkitu duenak eraman dezala Udaltzaingora edo bestela deitu 943 74 35 92 telefonora.
- Apirilaren Sean urrezko lepoko katea galdu nuen. Aurkitu duenak Udaltzaingora eraman dezala tnese-dez.
- Sare-maila zabaleko uezko pultsera galdu nuen orain dela 15 egun. Norbaitek aurkitu badu deitu telefono honetara. ar 943 74 08 15
- Txandalaren jaka galdu nuen nartxoaren 22an. Urdin iluna da eta marra granateak ditu (Nike. Talla 12). Aurkitu duenak Udaltzaingora eraman dezala. a 943 74 21 66
- Seiko erlojua galdu dut. Aurkitu duenak dei dezala mesedez 943 74 05 62 telefonora.
- Erantzun bat aurkitu dut Ikastolako semaforoan, 'De JA a MO 7-8-71' dauka idatzita. Udaltzaingoan dago. GLtuunbat arratsaldean nesken kazadora bakeroa aldatu zidaten. Norbaitek zerbaite baleki deitu mr 943 74 18 06 telefonora.

Oharra

Merkatu txikirako oharrak asteazken eguerdia baino lehenago ekarri behar direla gogorazten dizuegu.



• Zorionak Arkaitzi, hilaren 19an 19 urte bete zituelako. Unaien, Aseenen eta amaren partez.

• Zorionak

Eider Rodriguez, hilaren 30ean 3 urte beteko dituelako. Atton-amonen, osaba-izeben eta bereziki Arkaitz eta Eneritz lehengusuen eta ahizpa Sarairen partez.



• Zorionak Ioni, hilaren 25an 2 urte bete zituelako. Gurasoen partez muxu handi bat.

Garajeak

- Garaje itxia salgai Arregitorre kalean. s 943 74 12 53
- Marradun garajea alokatzen dut Arregitorren.v 943 74 33 43 (20:00etatik aurrera deitu)



• Zorionak

Conehi Gonzalez, hilaren 23an urteak bete zituelako. Bere alabaren partez.



Agurrak

- Zorionak Iñigo Agirregornez-kortari, hilaren 13an 12urte bete zituelako. Ikastolako 6. mailakoen partez.
- Zorionak Jorge, 15 urte bete dituntlako. Nola ibili zinen hilaren 15ean? Zorionak DBH 2 eta 3koen partez.
- Zorionak Jose M. Rodriguez, hilaren 23an urteak bete zituelako. Familiaren eta bereziki alaba Eiderren eta Sarairen partez.
- Zorionak Ainhoari eta Leireri, hilaren 19an eta 25ean 12 eta 9 urte bete zituztelako. Salegiko taldearen eta bereziki umeen partez.
- Zorionak Nekane Zulaikar, hilaren 25ean urteak bete zituelako. Familiakoak.
- Zorionak hirukote. Argazkirik ez dogu lortu eta librau in zerate. Zuen eguna ondo pasauko zendutela uste dogu. Muxu haundi bat Olhana, Aurkene eta Zuriñe zuen eguneko partez. Koadrilakoak,



• Zorionak amama Mariari, hilaren 27an urteak bete zituelako. Familiaren eta bereziki biloba Ikearren partez.

• Nora, heldu da eguna! Azkenean hiru urte! Zorion bero bat gurasoen, familiaren eta Oterrotarren partez, maitia.



• Zorionak Nora Bastida Agoteri, bihar, hilak 29, 4 urte betekoko dituelako. Bere ahizpa-txoaren, aiton-amonen eta fami-

liaren partez,

• Zorionak Jennifer Riverori, hilaren 22an 12 urte bete zituelako. Gurasoen partez.



• Zorionak Ainhoari, aprilaren 19an 12 urte bete zituelako. Besarkada handi bat Gurasoen eta Leireren partez.



• Aupa Txino! San Prudentzio, San Prudentzio... ailegau da San Prudentzio eguna. Bostekuari bat gehitxu eta ailegau haiz seira. Baina lasai, heldutasuna ez omen dok 40ra arte ailegautzen. Txabalito bat haiz ondiokan. Zorionak Elgoibarko Izarrako lagun guztixen partetik, eta muxuak.

• Zorionak Leireri, apirilaren 25ean 9 urte bete zituelako. Jarraitu horrela trikittlari! Muxu handi bat familiakoen partez,



ZELETA BARAZKIAK

NEKAZARITZA TRADIZIONALA eta BABESTUA

- Landareen produkzioa
- laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa
- Bertako produktuetan erantzunik gertukoena



ZELETA BASERRIA
San Migel auzoa ELGOIBAR

ZEZEN-BIDE

AUTO-ESKOLA

Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak

014111~9:00~11 a



*%10eko deskontua
Gazte Txartelarekin*



asir



Herriko Antzokian
maiatzak 5, ostirala
gaueko 22:30etan



Haritz
Euskal Dantzari Taldea

kukubiltxo



Txirrikiz

Herriko Antzokian
maiatzak 14, igandea
arratsaldeko 16:30etan



Udala